


Nafarkaria

Nafarroako gehigarria / Ostirala, 1994ko otsailak 18 / IV. urtea / 115. zenbakia

Adioaren hasiera

Retegi II.ak pilota uzteko lehen urratsa eman du. Be-launek ez diote barkatu, eta buruz burukoak inoiz izan den pilotaririk handiena galdu du. Hala ere, bi-bitakoan, gauza handiak egin nahi ditu oraindik eratsundarrak, eta heldu den urtean Belokirekin jokatzea gustatuko litzaiokeela dio. «Zaharrena eta gazteena, elkarrekin txapeldunak: polita litzateke».



Metropoli forala

FELIPE RIUS



Frankotiradorea

Nire buruaren zirrikituetan dagoen frankotiradorea esnatu dela sentitu dut eta toki seguru baten bila abiatu naiz lasterka pentsamenduaren etorbidean barrena. Hildakoak bazterretan pilotzen dira eta bozgoragailuetatik ateratzen diren parre zakarrek izutu naute. Badakit barrenean daramadan hiltzailea dela arriskutsuena; hala ere leihotara begiratu dut eta momentu batez nire antza duen gizon baten aurpegia ikusi dut. Mahatsa jaten ari dela iruditu zait eta lasaitu egin naiz, baina orduan tiro bat entzun da eta nire ondoan zihoan emakume bat erori da. Eskuan koaderno bat daukadala ohartu naizenean, harengana itzuli naiz eta kendu diot. Gero, begiak itxi dizkiot eta koaderno, balen kontrako txaleko bat bailitzan, bihotzaren gainean jarriz, aterperantz segitu dut. Aterpearen aurrean eskale batek plastikozko baso bat luzatu dit eta txanpon bat bilatu dut patrikan; kalibre txikiko bala bat besterik ez dut aurkitu eta eman diot. 'Jainkoak sifilis sendaezin batez ordainduko ahal dizu', erantzun dit eskaleak irrifartsu. Barrenean pospolu bat piztu dut koaderno irakurtzeko. Orri bat besterik ez du idatzirik: goiko partean data dago eta honen azpian esaldi bat, 'Gaurtik aurrera ez dut gehiago idatziko. Pavese'. 'Nahikoa da gaurkoz', esan du orduan ahots batek eta denok altxatu gara. Kanpoan, emakumea ere zutik dago eta koaderno eskatu dit. New Yorkeko Bostgarren Etorbidean gaude eta galtza bakeroak iragarriko dituen spot bat egiten ari gara, baina nire irudimenean frankotiradoreak disparatzeko prest ageri zaizkit. Biharko errodaiearen zehaztasunak ematen ari diren bitartean garrasiak entzun ditut urrutian, manifestazio bat dator guregana poliziek inguratutik. Bosniako sarraskia salatzen dute eta manifestariak, nik bezala, leihotara begiratzen dute tarteka izuturik 'Butros Gali hiltzailea' oihukatzen duten bitartean. Orduan, mugimendu erreflejo batez, koaderno daraman emakumearen eskua hartu dut. 'Goazen galtza bakero hostia hauek kentzera eta koadernoan betetzen saiatuko gara', esan diot, eta etorbidea gurutzatu dugu lasterka.

ERAKUSKETAK

J.R. Elortza artistaren erakusketa zabalik dago Iruñeko Pintzel Galerian, otsailaren 25a arte. Margolari honen lanak ikusteko ordutegia hau da: goizetan, 10.00etatik 13.30etara, eta arratsaldean, 16.30etatik 20.00etara. Larunbat arratsalde eta igandeetan itxita dago.

Asun Goikoetxea artistaren erakusketa zabalik dago Iruñeko Kribia Galerian, martxoaren 1a arte. Bakaikuko margolari honen lanak ikusteko arratsaldeko ordutegia dago, 18.00etatik 21.00etara.

IKASTAROAK

Yoga, aretoko dantzak, eskulana, jostura, masaia, pintura eta marrazkia, antzerkia, emakumeentzako autodefentsa eta bestelako ikastaroak antolatzen ditu Iruñeko Alde Zaharreko auzo elkarteak. Izena emateko, Elkarteak Aldapa kalean duen egoitzara joatea edo 21 25 26 telefonora deitzea besterik ez dago.

MINTZALDIAK

'El Salvador' izenburuko mintzaldia eskainiko dute bihar larunbata, otsailak 19, Rakel Garijo eta Lili Moran idazleek. Garraldako Etxabarrenkoa elkarrekin antolatuta, arratsaldeko zazpietan hasiko da, Orbaizetako udaletxean. Mintzaldiarekin batera, diapositiba emanaldia eskainiko dute.

'Prentsaren eragina iritzi publikoan' gaiari buruzko mintzaldia izango da heldu den ostegunean, hilak 24, Iruñeko Zaldiko Maldiko elkarteak. Arratsaldeko 20.00etan hasita, Ander Iturriotz eta Josu Amezaga EHUko irakasleak izango dira solaskideak.

'Zuberoaren berri' gaiari buruz mintzatuko dira heldu den asteartean, hilak 22, Itxaro Borda idazlea eta Jean Mixel Bedaxagar kantaria. Nafar Ateneoak antolatuta, arratsaldeko 19.30etan hasiko da, Hizkuntz Eskolako Kaldereria kaleko aretoan.

BESTELAKOAK

'Aralar' izenburupean, diapositiba emanaldia eskainiko du gaur, hilak 18, Nafarroa Kirol Elkarteak. Mikel Garaikoetxeak zuzendua, Elkarteak Jarauta kalean duen egoitzan izango da, arratsaldeko 20.00etan.

NAFAR KRONIKA

JON ALONSO

Legokiokeenari

Goizeko bederatziak; San Francisco Plazako liburutegiaren ateak ireki dira. Hirurehunik gora ikasle suharrek osatutako oste zalapartatsua arrapaladan sartzen da bertara, etorkizunaren giltza eskuratzea goiz hartan liburutegian aulki bat harrapatzean jokatu baiduten. Hau da hau, belaunaldi gazteek gauzen ikasteko erakusten duten grina! Biba zuek! Gazteek emaniko adibideari esker bizkorrago egiten du batek lantokira iristeko falta den galipoi-puska.

Goizeko hamarrak. Gizaseme arrunt bat liburutegian sartzen da, bi liburu ordu erdiz ikustearekin argitzen den zalantza baten erantzuna biltzeko asmo zoroan. Liburuak eskatu eta seguru aski goiza hartan kaka egin ez duen liburuzainak ia tokirik ote duen galdetzen du. Ezetz. Orduan ez dago libururik. Gizasemeak mahaiak lepo beteak bai baina aulkien erdiak libre daudela ikusten du: jakinminak kizkorratutako gazte jendea ulergarriagoak diren zereginetan hasi dela seinale, eta hala, batzuek hehezortzi urtetako gorputz estrainatu berriak erakusteari ekin diote, beste batzuk kafe-txo bat hartzera joan diren bitartean. Bada musuka eta zirrika ari den atean bertan, edo txiste kontari kanpoko eserleketan. Normala. Gizasemea ez da, hala ere, errua gazteei egozteko bezain erretxindua. Liburuzainarengana abiatu delarik azalpen eske honek erantzun dio goiz hartan, eta

are, azken hilabete osoan ez duela kaka egin argi salatzen duen arpegiarekin. Gure giza-semeak alde egin du etsita baina ez konforme, eta libururik ikusi gabe, jakina.

Liburutegi orokorreko egoera lotsamangarria da

ten— baldin eta bertan ipurdi-sabelak igurtzika —nahiaren kontra igurtzika, baina— dabilen tropak sartzeko lekua utzi eta airearen kiratsak atzera eramaten ez bazaitu. Bertan ikusiko duzu neska beltzaran bat —agur eta ohore—, bere



gutziz; toki-arazoak, informatika eta antzeko berrikuntzen zantzurik inondik ez, burokrazia gehiegizkoa, oraingoz jendaurrean ari den pertsonari eskatzen ahal zaion gutxieneko atseginez hartzen zaituen horri laster blokatuko zaizkio tripako hesteak... Handik metro gutxitara aszensor txiki pareta jartzeko eskas litzatekeen hedaduran liburuak maileguan ematen dizkizute —orain gutxi arte 'prestatu' egiten zituz-

burua olagarro nahi izango lukeena, dozenaka liburu hartu eta emateko tenorean, arinetan eta irrifarra —oraingoz— galdu gabea... eta Diputazioko Artxibategira sartzeko Herkulesen zazpi lan horietako bat adinekoa irudituko zaizu inoiz saiatzen bazara... uste baino gehiago dio guzti honek gure izakera bereziaz. On Pio pentasenduaz eta Nafarroaz esan zuena, ba horixe. Baldintza hauetan, ez da harrizkoa.

ASTEKO PERTSONAIAK



Maximo Oloriz
Musikaria



Patxi Eugi
Pilotaria

Aste honetan jakin da zein den Iruñeko Ganbara Abesbatza Elkarteko zuzendari artistiko berria: Maximo Oloriz iruinesea. Bere aurretik Jose Luis Eslaba izan zen karguan baina, dirudienez, abesbatzarekin konponezinak zituen eta krisialdi luzea izan du elkarrekin. Zuzendaritza Batzordeak krisia gaititu eta «etapa berri bat hasteko» izendatu du Oloriz zuzendari. Honek, berriz, gustora hartu du lana, «ilusio handiz eta lan egiteko irrikitan». Luzera begira maila artistiko gorena lortu behar dela azaldu zuen, «modu honetan, agintariak, babesleak, bazkideak eta lagunek guregan jarri duten konfiantzari erantzun egokia emateko». Hori bai, lan handia izango du Olorizek, datozen hilabeteetan kontzertu asko baititu Ganbara Abesbatza Elkartek.

Lau hilabete baino gehiago jokatu gabe egon eta gero, igande honetan Lkantxan izanen da Patxi Eugi gaztea. Joan den urriaren 12an jokatu zuen azken partidua, Lekunberrin, eta bi egun geroago hasi zitzaion eskuin eskuko arazoa. Azkenean, azaroan operatu egin behar izan zuten, eta eskuan zuen ikortzirina kendu zioten. Abenduan alta eman ostean, entrenatzen hasi zen, eta orain bere burua prest ikusten du lanean hasteko. Buruz burukoa, gainera, berehala hasiko da, eta orduan ongi egon behar du. Hori bai, garbi adierazi du lehendabizikoa eskua dela, «jokatzeagatik eskuan arazo gehiago sortzen badira ez dut buruz burukoan parte hartuko». Irrikitan dira asko Agoizkoa jokatzen berriro ikusteko.

AHAZTU GABE!

HERRI KIROLAK

Euskadiko Sokatira Txapelketako bigarren jardunaldia izanen da igande honetan, otsailak 20, Beran, goizeko hamaiketan hasita. Igandeko saio honetan 560 kilotako mailako gizonezkoak eta 480 kilotako emakumezkoak ariko dira. Aipatu beharra dago Nafarroako lau taldek hartuko dutela parte: Amairuko Sokatira taldeak 560 eta 600 kilotan, Lesakako Beti Gazte taldeak 560 eta 600 kilotan, Aresoko Sokatira taldeak 600, 640 eta 680 kilotan, eta azkenik, Berako Gure Txokoa taldeko neskek, 480 kilotako mailan. Igandean ikusi ahal izango ditugun taldeak hauek dira: Goiherri, Eskoriatza, Iparralde, Torrekolanda B, Lagunak eta Lesakako Beti Gazte. Emakumezkoen artean, berriz, Aitxaspe, Torrekolanda, Gaztedi, Goiherri, Badaiotz eta Berako Gure Txokoako neskek.

JENERO XUMEKOAK

Emakumeen amodioaz

Agi denez, emakumezkoen amodioa haiekiko gizonezkoak daukaguna baino handiagoa izaten da. Gure amodioaren truke beti zeozer gehiago ematen digute. Hala ere horrekin ez dugu deus ere aseguratzen. Zozayak maite egingo nau nik Zozayak maitatzen dudana baino pixka bat harantzago. Ongi da. Baina nola azaldu Zozayari ez duela arau hau Joxemielekin ibili behar?

ELIAS SARASA - ERRO

ADI!

EUSKALERRIA IRRATIA FM 91.4

Egunero, astelehenetik ostiralera, **'Zokobetailu'** goizeko 10.00etatik 11.00etara.

XORROXIN IRRATIA FM 107.5

Egunero 20.00etatik 22.00etara... **Karakola segi hola** gazteendako saioa.

RNE RADIO 1 OM 835

Asteazken 20.30etatik 22.30etara... **Zuri eta Beltz** Elkarrizketak, erreportaiak, musika.

ARALAR IRRATIA FM 106.2

Asteazken 13.30etatik 14.00etara... Bertako bizilagun eta pertsonai ospetsuei elkarrizketak.



Donibane Garazi

Irulegiko Irratiaren kanpaina

LE. / BAIONA

Joan den astean hasi zen urtero Irulegiko Irratiak egiten duen kanpaina, dirua biltzeko eta indarberitzeko. Garaziko Inauterriekin batera hasten da kanpaina eta hilaren 27a arte iraungo du. Ipar Euskal Herriko hiru euskal irratiek egiten duten bezala, urtero kanpaina beharrezko bat antolatzen du duela 12 urte sortu zen irratia. Frantziako legeen arabera elkarte irratiek urtean behin dirulaguntza bat jasotzen dute, Irulegiko Irratiaren antzekoentzat 200.000 liberatik hurbil dena (bost milioi pezeta).

Beste diru iturria lurralde erakundeetarik dator, hots, udalteeetatik eta Departamendutik. Azken honek bere laguntza nagusia orain arte erdaraz ari ziren irratia pribatuei ematen zien, batez ere Radio Bayonneri. Iaz Bayrou lehendakariak onartu zuen «irizpide objetiboen beharra» laguntzaren banatzeko. Hala ere, nahiz gehitu den Departamenduko laguntza, elkarte irratia askoren artean partekatu beharko da, bakoitzari 30.000 libera inguru etorriko zaiolarik (750.000 pezeta). Nafarroa Behereko udalteekek diru ahal guti dute eta Irratiaren zerbitzua onartua arren, laguntza guti baizik ez zaio bide horretatik heltzen. Aldiz, hasieratik, Irulegiko Irratiaren indarra bere entzuleengandik etortzen zaio. Herri guzietan etxez etxe diru bilketak antolatzen dira urtero irratia alde, urte hasieran, aurtun egingo den bezala.



Irulegik ezezik, Ipar Euskal Herriko beste euskal irratiek ere kanpainak antolatzen dituzte.

SOSTENGU KANPAINA ALAIA Umorea askotan erabiltzen duen irratia da Irulegikoa. Irulegiko borda utzi arren, Donibane-Garaziko gela berrietan gazte talde langile eta biziak eramaiten du eguneroko bizia. Entzule kopuru zabala jendearekiko harreman zuzenean finkatzen da. Hiru festaren artean kokatzen da kanpaina: joan den larunbateko Inauterietan, larunbatean zortziko kontzertu eta dantzaldia izan zen eta azken eguneko herri bazkaria. Bihar, larunba-

ta, Txakun taldeak kontzertu bat eskainiko du arratseko hamaitetan Irulegiko Denen Etxea salan. Gero, Imuntzo eta Belokik dantzaldi bat animatuko dute. Azken egunean, otsailaren 27an, igandekari, Irulegiko Irratiaren bazkaria egingo da Heletako Erregelua salan. Adartza musika taldeak alaituko du bazkaria.

BERTSO PAPER LEHIAKETA Kanpainaren denboran Irratiak bertso-paper lehiaketa bat antolatzen du. Gaia emanda-

koa da: Irulegiko Irratia omorez. Nahi den neurrian eta nahi den bertso kopurua bidaltzen ahalko da Irratira, otsailaren 20rako, helbide honetara: Irulegiko Irratia, 6. Arnegiko Bidea, 64220 Donibane-Garazi.

Pantzo Irigarai, Marie Agnes Gorostiaga, Bernadette Hargain, Pantxika eta beste guzietan osatu ekipa alaia, Nafarroa Behereko bizinahi dinamikoaren eguneroko ardatz eta lagun agertzen direnak herritar askoren sostengu handiarekin gertatuko dira.

Burlata

Dendetan euskararen erabilera bultzatuko du Euskara Zerbitzuak

BURLATA

«Burlatako euskaldunak batua daude, badakite Udalak zer eskaintzen dien eta zer zerbitzuak dauzkan eta, beraz, iruditzen zaigu egiten ari garen lana ez dela alferrikakoa: aitzitik, hagitx inportantea da». Patxi Telletxea Burlatako Euskara zinegotziak hitz horiekin azaldu zuen iaz Udaleko Euskara Zerbitzuak egindako lana, eta bertako Udalak euskararen inguruan lortutako akordioa azpimarratu zuen horretarako. «Udalean bada akordio orokorra gai honen inguruan, eta horren eragile inportantea alkatea da. Euskararen arloan oso garbi ditu gauzak, eta horrek asko laguntzen du alderdi

sozialistaren aldetik dauden arazoak saihesten». Burlatako Euskara Zerbitzuak urte honetarako aurrekontuaren eta iazko balantzearen berri emateko eskaini zuen prentsurrekoaren ostean egin zituen zinegotziak adierazpenak.

Aurtun bost arlo landuko ditu Euskara Zerbitzuak: udalteeetan, funtzionarien euskalduntzea; hezkuntzan, Hilarion Eslava ikastetxe publikoan dagoen euskarazko lerroa; kultura eta aisialdia; sentsibilizazioa; eta helduen euskalduntzea. Halaber, bi proiektu bereziki azpimarratu zituen Telletxeak: dendaz denda egin nahi den kanpaina eta helduen euskalduntzerako dirulaguntza.

'Dendaz denda' izenekoa SIADECO enpresarekin elkarlanean egingo da, eta asmoa dute komertzio eta denda euskaldun zein erdaldun guztiak lantzea. Horetarako lauzpabost lagunek osatutako taldeak ikastaroa jasoko du, benetan eraginkorrak eta zuzenak izan daitezkeen. Denden aldetik konpromezu zuzena eskatuko da, errotulazioa euskaraz jartzetik lehendabiziko hitza euskaraz esateraino, mailen arabera.

Aurtengo aurrekontua ia 7 milioi pezetakoa izanen da, eta diru gehiena, ia bi milioi, euskaldunen sentsibilizazio kanpainetan erabiliko dute, 'Bai esan' eta 'Udalteeetan euskaraz' izenekoak.

Baztan

Dirulaguntzak baso ustiapenak dituztenendako

IRUÑEA

Baso ustiapenei Europako Batasunak ematen dizkien dirulaguntzei buruzko informazioa eskaintzen ari da egunotan Forresna-Zurgai Baztanen eta Bidasoan. Atzo hasi ziren Baztango udalteeetan, Elizondon, eta hurrengo egunetarako egutegia haxe da: gaur, hilak 18, Urda Zubin eta Zugarramurdi izanen dira; astelehenean, hilak 21, Donezteben; asteartean, Sunbillan; asteazkenean, Etxalarren; ostegunean, Lesakan; ostiralean, hilak 25, Goizuetan; eta astelehenean, hilak 28, Arantza eta Iganztzin. Asteartean, martxoak 1, Elizondon berriro. Goizeko 9etatik 14.00ak bitartean izanen dira udalteeetan.

Navarrieriako iturritik

Juan Kruz Lakasta



Taberna eta Kongaren oroimenez


Aurki Jimeno Juriok eta Jose Maria Satrustegik neguko solstizioan egiten diren jaiak buruzko liburuetan inauterien kapituluari pertsonaia berri bat erantsi beharko diote. Lantzeko Miel Otxinen, Unanuko ihoteen eta Goizuetako mozorroen ondoan, Navarrieriako Muni-Trapu aipatu beharko dute. Izan ere, Alde Zaharreko Auzo Elkarteko kideek isuritako izerdiari esker nabarmen bizkortzen ari da Muni-Trapu, eta oro har auzo zahar honetako inauteriak. Aurtun, baina, gertakizun ilun batek nabarmen goibeldu ditu amaitu berriak diren jaiak.

Inauteri garaian kalimotxo mozorroetarako edari madarikatua ailegatu zaigu Navarrieriako iturriaren inguruetara. Badu kalimotxoaren kolorea, baina haren izena ere, baina ez da, inondik inora, kalimotxo. Iruindar zaharrenek diotenez, garai batean tabernan kalimotxo eskatzen zenuenean zerbitzariak zure aurrean prestatzen zuen nahastura. Coca-cola eta ardo botilak hozkailutik atera, eta zer proportziotan nahastea nahi zenuen galdetzen zizun. Horiek, baina, aspaldiko kontuak



dira. Iruñera ailegatu berria den kalimotxo fabrikaren eginikoa da. Garagardoa bezala, metalezko barriketan ailegaten da tabernetara; etiketetan azaltzen denez, ardoz, karamelo eta cola estraktuz eta beste hainbat estraktu eta kontserbantez beteriko barriketan.

Orain gutxi arte, behintzat bi barrika ezberdinetan ailegaten zen kalimotxo. Batean ardo, eta bestean Coca-cola. Kalimotxo berria bezala, presioko txorrotetatik ateratzen zen, baina artisautzari tartetxo bat gordetzen zitzaien. Zerbitzariak bi lehengaiak nahasteko zuen trebezia erakus zezakeen. Orain, ordea, edozein fabrikatan hauts zikinak tonaka nahasten dituzte kalimotxo egiteko. Anabasa horren emaitzari, hur gorrixka zikin horri, txikitan hartzen genituen flash-en zaporea hartzen diet nik. Horren alboan, luxu filipinoan litzateke Taberna anaien ardo eta Konga light eskuz nahasiz eginiko nahastura edatea.

Retegi:  adioaren hasiera

ALBERTO BARANDIARAN / IRUNEA

Historiak izan duen pilotaririk onena da, duda gutxi. Eta mito izateko bidea badarama. Hementze urtez aurkakoak dantzarazi ondoren, buruz burukoa uztea pilotari adioa emateko lehen urratsa da. Polemikoak, izan ere, nahiz eta, bere ustetan, polemika bere gainean egin duten. «Ez naiz inoiz polemikoak izan, baina ez dut faltsukeria ametitzen», dio.

Garbi hitz egiten du, eta harroko ere bada, baina nork ukatu harrokeria hamaika txapela jantzi duenari, kontrariorik izan ez duenari, garai bat markatu duenari? Egun inoiz baino jarraitzaile gehiago dituela esan du, eta parte hartuko ez zuela esan ondoko partiduan izugarritzko txalo zaparrada jaso zuen, Lodosan.

EGUNKARIA.— Buruz burukoan ez zenuela parte hartuko baieztatzeko eman zenuen prentsurrekoaren egunean animoz «makal» zenbiltzala zenioen. Hala ere, hiru egun geroago, Lodosan jokatu, izugarritzko partidua egin eta irabazi. Dena ahazten duzu kantxan, ezta?

JULIAN RETEGI.— Ohituta nago. Kasu horiek gertatu zaizkit, ez askotan, baina badakit nola funtzionatzen duen horrek. Egun horretan nahiko animo bazuarekin nengoan, eta arazo horiekin beti ibiltzen naiz nerbio. Larunbaterako mentalizatuta nengoan Lodosan partidu ona egin behar nuela, eta hala atera zen.

EGUNKARIA.— Gainera, txalo zaparrada ederra jaso zenuen.

RETEGI.— Bai, eta hori estimatzen da. Joaten naizen bazter guztietara, nola Lodosan nola beste frontoietan jendea gero eta gehiago dago nire alde, eta poz handia hartzen dut. Atzeneko urteak dira niretako, eta gertatu da zenbat eta urte gehiago pasatu, orduan eta maiteago nautela.

EGUNKARIA.— Sumatzen duzu jendearen aldetik animo gehiago?

RETEGI.— Bai, berotasun hori gehiago sentitzen dut lehenago baino. Momentu honetan esango nuke behin ere baino jarraitzaile gehiago dauzkadala. Beharbada, denborarekin joan dira ulertzen nire kasua. Askotan fama izan dut kantxan egoista nintzela, baina nik uste dut momentu honetan jendeak ulertu duela ni izan naitzela profesionala hanketatik hasita bururaino, eta ikusten dut berotasun hori afizionatuen gainean.

EGUNKARIA.— Eta gehienbat afizionatuengan? Kritikak ere izan baitira...

RETEGI.— Beti izaten da egunkariren bat edo beste kritika gogorak egiten dituenak, baina ulertzen dut. Gero zuk erakusten badiozu ez duela arrazoirik, hori ona izaten da. Txarra izaten da inbidia pixka batekin egiten badiuzte kritika horiek. Baina kritika ona da, eta nik alde positiboa ateratzen diot kritikari, demostratu nahi baitut egiten den kritika



«Historialarekin ez dago bizitzerik, niri egunean eguneko egitea gustatzen zait».

JOXE LACALLE

Retegi II.ak, inoiz izan den pilotaririk handienak, pilota uzteko lehen urratsa eman berri du. Buruz burukoa baztertuta, bi-bitakoa gelditzen zaio, zaigu, bere jokoaz gozatzeko. Hala ere, pilotaz oraindik gozatuko duela dio, eta inoiz baino jarraitzaile gehiago dituela. «Horrek ematen dit poz handiena».

«Pertsonalki ez dut etsairik»

hori ez dela egia, eta horrek motibatu egiten zaitu jokoan gehiago egiteko.

EGUNKARIA.— Baina zergatik azken kritika horiek, buruz burukoa uzteko erabakia zela eta? Aurkeztu zenuen azterketa medikoak garbi zioen belaunak txarki dituzula...

RETEGI.— Ni goiko mailan nago aspaldiko urteetan, eta normala da kritika hori, eta lagun batzuek ere, askotan, egiten dituzte nahiko komentario gogorak. Egiten dituzte beharbada ni hor nagoe-lako, eta postu hori hartu nahi izan dute denek. Politika baldin bada kirola, horrexegatik da. Bestela, denboraldi batzuk ez dira oso onak izaten, eta egun guztiak ez dira berdinak. Nire kasuan, jokoarekin zorte handia izan dut. Jokatu ditudan guztietan partidu txarrak oso gutxi egin ditut, baina beti kritika modu bat ateratzen da egunkarietan: non daukadan hutsa, non nabilen estu, ez naizela errematatzailea... zerbait bilatu behar da. Polemika horrekin saldu ere gehiago egiten da, eta nik horrela ulertzen dut.

EGUNKARIA.— Eta zer moduz onartzen dituzu kritikak?

RETEGI.— Behin edo beste baldin bada, ez zait inporta. Hau negozio bat da. Baina txarra da, erabat, zauri hori ukitzen aritzen baldin

bazaizkizu. Batez ere, egia ez baldin bada. Egia erdixka esaten dutenean, min handia hartzen dut. Faltsukeriak ez ditut ametitzen.

EGUNKARIA.— Uste duzu mezezi baino kritika gehiago jaso dituzula?

RETEGI.— Egia esan, oso kritika gutxi izan dut. Fama izan dut beti polemikoa nintzela, baina ez dut uste. Ni ez naiz polemikoa izan, polemika egin izan dute nire gainean. Baina ez da harrizkoa nire kasuan. Hogeit urte daramazkit lehendabiziko mailan, eta urtean behin egitea kritika hori normala da.

EGUNKARIA.— Binakakoa gelditzen zaizu oraindik, baina zuk eman duzun pauso hau pilota uzteko urrats bat bezala ikusten duzu?

RETEGI.— Hori garbi dago. Badakit atzeneko urteetan nabilela, buruz burukoa ez dut jokatu, eta bi-bitara ikusiko dut zenbat urte aguantatzen dudana. Izan daitezke bat, edo bi, edo lau, baina ahaleginak egingo ditut saioan egoteko eta kantxan erakusten badut onenetan nagoela,

poz handia izango nuke.

EGUNKARIA.— Gozatuko duzu oraindik pilotaz, buruz burukorik gabe?

RETEGI.— Nik uste dut baietz. Bi-bitara beste tipo bat da. Lagunarekin konpartitzen duzu lan hori, eta errazagoa da. Pena handia izan dut buruz burukoa uztea, 19 urte izan dira eta. Hamabost final jokatu ditut, eta hori gauza handia izan da niretako. Egunen batean ailegatu behar zuen, eta orain izan da.

EGUNKARIA.— Zer iruditzen zaizu garrantzitsua? Hamaika txapela horiek edo zuk utziko duzun irudia, joko estila?

RETEGI.— Galdera hau lehendabiziko aldiz egiten didate, eta ongi iruditzen zait. Hamaika txapelak oso garrantzitsuak dira, batez ere hemendik urte batzuetara historia izango direlako. Baina garrantzi handiago ematen diot nik pilotan egin dudana lanari. Pilotak niri asko eman dit, baina pilotarekin neure burua joan da. Nik dudana guztia pilotari eman diot, eta hainbeste urte egon naizen postuan egoteko, eta txapel horiek

ateratzeko... hori da garrantzitsua. Gora-beherarik ez dut sentitu hasi nintzenetik. 39 urterekin punta-puntan nago, eta kontrarioak ere oraindik ez daude nire gainetik. Inportanteena hori da.


EGUNKARIA.— Mito eta horrelako hitzak aipatzen direnean, ez al zaizkizu handiegiak egiten?

RETEGI.— Mitoa izango naiz, baina ez diot garrantzi handirik ematen. Historialarekin ez dago bizitzerik, niri egunean eguneko egitea gustatzen zait, eta gero pixka bat etorkizuna prestatu.

Begietara ari da, zuzen-zuzen. «Sentsibilitaterik galdu ez duten» eskuak estuki lotzen ditu, azterketa batean balitz bezala, eta bakarrik berak nahi duena esaten duela gelditzen zaizu hondarean. Benetako Julian batzuek soilik ezagutzen dutela, alegia, eta ahaleginak egiten dituela horrela izan dadin. Baina erantzunak bene-benetakoak dira, nahiz eta kasetea itzalita solasaldi osoan baino askoz lasaigo eta atseginago izan.

EGUNKARIA.— Tolosak eta biok utzi duzue buruz burukoa, eta Eugi dudatan dabil, eskuak direla eta. Zer iruditzen zaizu sortu den egoera?

RETEGI.— Tolosak urte asko eman ditu pilotan, eta momentua

Retegi:  adioaren hasiera



Julian Retegi.

JOXE LACALLE

heldu zaio. Beharbada sistema ere ez zaio gustatu eta utzi egin behar izan du. Eugiren kasua bestelakoa da. Joan den urtean eskuetatik minduta gelditu zen, eta nahiko ongi dagoela badakit. Baina oso arriskutsua da buruz burukoa jokatzeko. Galtzea da gutxienean, baina egin lezake desgrazia eskuetan, konponbiderik ez lukeen modukoa. Ez bada ateratzen nik ulertuko diot garbi, baina askok ez. Pilotariari ulertu behar zaio jokatu nahi duela, eta ez badi jokatzeko izango dela kondizioetan ez dagoelakotz.

EGUNKARIA.— Baduzu preferentzia berezia Eugirekiko...

RETEGI.— Tratatu dut asko, eta bere estiloa asko gustatzen zait. Bizia da pilotan, eta kantxan duen guztia ematen du. Horren txispa eta bizitasuna estimatzen dut pilotari batengan. Hala ere, sobera eskatu zaio beharbada, eta hori arriskutsua da. Hori asimilatu jakin egin behar da, gora-beherak izaten baitira.

EGUNKARIA.— Berak noizbait esan zuen zurekin inorekin baino gehiago ikusi duela.

RETEGI.— Beharbada ez du asko ikasi, baina, umeeekin gertatzen den bezala, saiatu da gauza batzuk kopiatzen. Baliteke estiloa nirea hartzea, baina gauza onak bakarrik hartzen ditu, txarrak ez (barrezka).

EGUNKARIA.— Hondarrean harapatu zaituzte pilotaren aldaketa guztiek —Asegarce, publizitatea, telebista—. Nola ikusten dituzu?

RETEGI.— Nik uste dut aldaketa

ez dela handia izan. Bakarrik izan da Asegarce sartu dela, eta telebistak publizitate handia eman diola. Aurretik ETBk ere lan handia egin zuen, eta orain Espainiakoa hasi da pilota eskaintzen. Nik uste dut pilotak etorkizun ona daukala, eta telebista tartean egotea garrantzitsua da.

EGUNKARIA.— Uste duzu norbait poztu dela zu erretiratzeaz?

RETEGI.— Ez dut uste. Beharbada nire kontra jokatzeko dutenak, kirolean, baina pertsonalki uste dut ez daukadala kontrario handirik.

EGUNKARIA.— Norekin gustatuko litzazuke bi-bitako txapela irabaztea?

RETEGI.— Aurten gustatuko zitzaidekeen irabazi banu Belokirekin. Ona izango zen historialerako: zaharrena eta gazteena. Baina ez genuen partidu ona jokatu, eta ezinezkoa izan zen.

EGUNKARIA.— Eta heldu den urtean ere Beloki gustuko?

RETEGI.— Hurrengo urtea luze da enetako. Baina sinatuko nuke momentu honetan Belokirekin jokatzeko. Hura gora joango da, eta nik ez dut behera egin.

EGUNKARIA.— Pentsatu duzu zer egingo duzun erretiratzean?

RETEGI.— Ez dut deus ere pentsatu pilota uzten dudana garaiarako. Ni jokatzeko ari naiz, eta konbentziturik nago zenbat eta urte gehiago orduan eta preparazioa hobea behar duzula. Momentuan jokatzeko jarraitu behar dut, egunean eguneko egiten, eta ahal dudana guztia kenduko diot pilotari.

Baso-lanetik goienera

A.B. / IRUNEA

«Eratsundik atera nintzenean, duela 19 urte, ezta antzik ere ez nion ematen hain gora heldu behar nuenik». Hogei urte bete berriak, baso-mutil Alpeetan ibilitakoa, lanen bat bilatu eta bigarren mailan —«afizioa ez galtzeko»— jokatu nahi zuen gaztea berehala bihurtuko zen pilotari konpletuena. Onena. Berehala, baina poliki. «Pilotan beti jokatu izan dut, nola txiki-txikitatik hasita, eta behar den guztia ona neukan pilotan jokatzeko, baina profesionala izateko ere dudatan ibili nintzen».

Osabak eta Martin Ezkurrak animaturik, proba egin, eta holaxe hasi zen, bigarren mailan. «Ni momentu hartan oroitzen naiz bigarren mailan jokatzeko mentalitatearekin nengoela. Hortxe jokatu behar nuela, eta lan pixka bat eginez, afizioa mantenduz, horrekin bizitzeko asmoa nuen. Baina debutatuz geroztik, hasi banintzen hasi, eta dena gora joan da, eta lehendabiziko urte hartan atera nuen bigarren mailako txapela, eta

handik aurrera dena ongi joan da».

Hala ere, kosta zitzaion profesional mailari heltzea, eta dena mentalizazio arazoa izan zela dio. «Ez nuen oso ongi asimilatu. Bigarren mailako txapela atera nuenean ardura handia hartu nuen, eta lehen mailan beste errespetu behar zela uste nuen. Eta lan egiten hasi nintzen, baina urte baten buruan nengoan onenekin. Hala ere, iruditzen zitzaidan hori nahikoa zela. Orduan urte pare bat joan zitzaidan irudipen horrekin. Gero asimilatu nuen neukan guztia demostratu beharra nuela, eta orduan hasi nintzen serio». Mentalizazioa eta prozesu horretan zeresan handia izan zuen bere aurreko lanak, baso-lanak. «Utzi zidan horrelako marka bat, erakutsi zidalako bizitzan lan eginez gero lortzen direla gauza asko».

Bukatzen duenerako deus pentsaturik ez du, baina umeei irakastea gustatuko litzaioke, gogorregia bada ere. «Entrenamenduak egin izan ditut anaiekin, eta egun batean egia esan zidan erantzun hartan: 'Hik zer

nahi duk, hik bezala jokatzeko?' eta nik erantzun nion serio: 'Bai, nik hori nahi diat'. Gero ulertzen duzu denek ez dutela abilezia hori egiteko. Orduan irakasle gustatuko litzaidake, baina ume txiekien. Zortzi eta 12 urte bitarte horretan estiloa eman behar zaio umeari, nola ezker eta nola eskuin, biak izan daitezela oso libreak. Hortik aurrera bera ateratzen da pilotaria».

Eratsunen du bere gogoia, eta hara joaten da lasaitzera, atsedean hartzera eta galtzera. Bertan «harrizko moduko» pilotariak ikusten ditu, beste tokietan nekez aurkitzen diren horietakoak. «Erraz baita ezagutzen ume txiki batek burua ona daukan edo txarra daukan. Ikusten badu partidu bat eta segituan hasten bada pilotari baten posturak egin nahian, horrek esan nahi du buru hark funtzionatzen duela pilotarako. Eta Eratsunen ikusten da teknikaren aldetik mutilak oso kukuak heldu direla. Intuzio handia behar dute pilotan, eta haiek badute. Ikastoletan ere lan handia egiten ari dira, baina falta zaie zakurtasun hori».

mintzoak

Orakunde

● Ohiturari jarraikiz Iñaute aitzineko ortzegunean, aurten Otsailaren 10-ean ospatu da Orakunde, Baztango haurren besta. Gure haur denboran eta gure ana eta osabaren denboretan ere, Orakunde egunak bazaukan bere garrantzi eta besta giro. Ohiturak aldatzen ari dira eta ospakizunak ere aldatuz doazi baina bestaren oinarria 'Ollarra' da eta hunen inguruan egiten da jaialdia. Guk ere gure haur denboran parte hartu dugu eta horren oroitzapena barnasko sartua daukagu.

Berezi dezadan nere haurtzaroko urte bat eta 1928 hautatuko dut eta agertu ere urte hartako xehetasun guztiak. Orakunde aitzinean eta egun batzuz lehena gero biltzen ginen eskolan maixtruarekin eta antolatzen ginuen bestaren egitaraua. Billeren izendatzen ziren 'puske' biltzailerak eta ollarrak erosi behar zizutenak. Egun hortan ere mutiko guztiak ordaintzen ginuen Hamar sos bazkariaren saria emanik.

Orakunde egunean biltzen ginen mutiko guztiak eskolan, bakotzak zurezko ezpata bat eskuan zaukatela. Abiatzen ginen eskolatik denak 'Prozesionean' elizari buruz, denen aitzinean espainol bandera ginuelarik eta ondok Txistulariak, maixtru, Apeza eta Herriko Alkatea eta bi lerrotan mutiko guztiak. Elizan Meza. Ondotik herriari itzulita txistulariekin eta mutiko guztiak ere, etxez etxe 'puskek' biltzen

eta etxeetan ematen zuten, txistorra, zingerra, arroltze, ogia, naranjak, eta sosa ere. Biltzen zenakin egiten zen bazkaria. Ariztia ostatuan egiten zen bazkaria, mutiko guztiak han bildurik. Baita ere Alkate, apeza, maixtrua eta txistulariak. Neskatikoak ez zuten parte hartzen bazkarian, hok atsaldean bazuten txokolata bertze etxe batean. Gero neskatikoak parte hartzen zuten plazako dantzaldian mutikoekin batean. Erran dezadan ere bazkaria nola zen: Paella, tortilla txistorpuxekin eta naranja bat postretako. Ardo pittin bat ere eta ura bai auserki. Apeza eta bertze gainerakoak ere bazkaltzen zuten baina bazkari hobea izaten zuten.

Bazkalondan denak plazara eta hemen egiten zen jaialdia. Lehenik ollarren jokoa. Plazaren muturrean lauze bat kendu eta aitzurrez zilo bat eginik, hor sartzen zuten ollarra eta lurrez estali burua bakarrik agertzen zitzaioela. Plazaren bertze muturrean mutiko pila bat denak eskuan zurezko ezpata zaukatela. Begiak oihal batekin estaliak deus ikusi ez zezaten. Maixtruaren esku zarta batekin batera mutiko guztiak abiatzen ginen lasterak itsu itsuan ollarraren bila eta hunen burua ezpatakin ukitzen zuena izanzen zen irabaztale eta ollarra beretako. Aski zen burua ukitzea bakarrik. Gero bigarren ollarrekin bertze jokoa mutiko gazteagokoekin. Hok ere berdin egiten zuten.

Ollarraren jokoa egin ondoren bertze josteta bat. Soka bat paratzen zuen plazan eta han karrete batean xingola bat inguratutik, ustai ttipi bat xingolaren muturrean zaukela. Xingola edo zinta hok etxeetan ematen zuten erregelu bezala. Mutikoak lerroan ban-banaka eta lasterka xingola arapatu beharrez eta hortako baginuen ziri mehe bat eta hau xingolaren ustaiaren behar ginuen sartu eta gureganatu. Azken josteta hau bururaturik, dantzaldia mutiko eta neskatikoen

artean. Mutikoak erregalatzen ginon xingola gure gogoko neskatikoari, dantza lagun bezala. Neskatikoak xingola hori ezartzen zuten beren soin-buruan loturik. Ollarra arapatzen zuena izaten zen 'Danbolin-Nausi' eta bere lagun neskatiko 'Danbolin-etxeoandre' eta bikote hau den buru soka-dantzaren lerroan. Txistulariekin batean herriari Itzuli ttipi bat eginik soka-dantzan, berriz plazara eta hemen dantzan 'fandango' eta 'arin arin' dantzatzeko eta holaxe ilundu arte eta ilun-ekzilean denak etxera egun eder bat iraganik. Holaxe ospatu ginuen 1928-ko Orakunde. Urte hori berexi dut urte hartan nik ollarra arapatu nuelakoz. Orduan 12 urte nituen.





XAKEAN



Nafarroako Banakako Xake Txapelketako hirugarren ihardunaldiko partida, 1994-ko otsailaren 5ean jokatu.

Sebastian Cervantes (2.130 ELOkoa, 4. rankingean)-Santiago Karasusan (1. rankingean).

1.d4,d5; 2.c4,e6; 3.Zf3,c6; 4.Zc3,f5; 5.Ag5,Zf6; e3,Ad6; 7.Dc2,0-0; 8.Ad3,De8; 9.d5,-c-d5; 10.0-0,Zc6; 11.Zb5,-Ab8; 12.a3,Dh5; 13.Af4. Ez da egokia. Aldaketaren ondoren, peoiak sakabanatuta geratuko zaizkielako. 13..., Af4; 14.f4,Dg4; 15.Zc7,Gb8; 16.Ze5,Df4; 17.Zc6,c6; 18.-Dc6,Ad7.

Ikus koadroa. Honaino iritsita, aterabide bakarra dago. Baina lehenago honetan sartzea saihestu behar zuten. 19.Ze6,Dd2; 20.Dd6,-Dd3; 21.Zf8,Gf8; 22.Dc5,f4. Argi dago beltzek posizio hobea dutela. Gazteluaren truke, erasorako aukera nabarmena daukate. 23.fG-e1,Dg6; 24. Dc3,Ze4; 25.Da5,f3; 26.-g3,- Df5; 27.Da6,Zd2. Txuriek amore eman zuten. Alferrik zen honelako jarraipena: 28.Eh1,Dh6; 29.Gg1,-Gf6. Berehalaxe, Gh6' jokaldiaz, etorriko baitzen matea. Egia erran, txuriek partidaren garapena gaizki moldatu zuten.


Kontuz! Arratoiak!

Bai, arratoiak dira hirietako animalia ugariak eta arriskutsuenak. Kontuz! Arratoiak eta ez saguak, bi hauek izaki guztiz ezberdinak baitira. Iaz Iruñeko udalak eta beste batzuek arratoi kontrako kanpaina bat egin zuten. Iruñean tonelada bat pozoina erabili zen. Orain, beharbada, hau jakinda jendeak pentsatuko du 1.000 kilogramo pozoin erabiliaz Iruñeko arratoi guztiak hilik egongo direla une hauetan, baina ez, ezta urrik ere.

Ez uste gaur guk edozein zabortegean, sotoan edota oso garbi ez dauden kaleetan noizean behin-ka ikusten ditugun arratoi horiek betidanik egon direnik Euskal Herrian. Arratoiak Europara XVII. mendean etorri zen Asiatic, eta XVIII. mende arte ez zen Euskal Herrian azaldu. Europatik Afrikara pasatuko zen eta Ozeaniara ailegatu. Gaur egun mundu osoan aurkitzen da animalia hau. Eta ez bakarrik mundu osoan, edozein girotan ere. Mendingo arratoiak daude eta herri txikietan eta hirietan ere.

Hotz eta bero handiko lekuetan ere aurki daitezke animalia txiki bezain kaltegarri hau, baita ibai ertzeetan zein leku idorretan ere. Sekretua denetik jatea da. Mendingo arratoiak arropak, igelak, txori txikiak arrautzak eta beste edozein gauza jaten du. Hirietan gizakien hondakinak dira elikadura garrantzitsuena.

Gainera hirietan, gizakumeez aparte, etsai urriak ditu. Mendingo berriz, sugeek,



Nestor Martinez

(IRUÑEA)

hontzek, arranoek, azeriek, katunabarrek eta beste animaliek ere arratoi ugari jaten dituzte urtean zehar. Horregatik animalia horiek hiltzen diren tokietan arratoiak berehala ugaltzen dira.

Arratoiak gizonari nazka ematen dio zaborren artean dabilelako. Gainera eritasunak eta gaixotasunak kutsatzen dituzte eta izurriteen sortarazleak dira. Horretaz gain, beraien letaginek edozer gauza hauts dezakete. Batzutan gertatu da arratoiak taldeetan antolatzea eta haurrei eta babes ez dutenei erasotzea.

Horregatik arratoiak edonon kupidagabe hiltzen dira. Hala ere ez da erreza arratoiak akabatzea. Arratoi bikote batek



bi-hiru hilabeteoro izaten dituzte kumeak, eta aldi bakoitzean hamar-hamabost kume izaten dituzte. Gainera, arratoiak gazte-gazterik hasten dira kumeak izatean, bi hilabete baizik ez dutenean. Gauzak horrela, urtebetez, bi arratoiatik 2000 arratoietara pasa gaitze bat ere zailtasunik gabe. Horrela ba, saiatu behar da kanpaina gehiago egiten eta sugeak eta beste animalia ongariak ez hiltzen.

Erromak saritutako euskal gudariak

Oker ez bagaude, hauexek da euskaldunek Historia liburuetan idatzirik lehendabiziko pasarteak. Historiagilea Tacito daukagu (Hist. IV 33). Zintzarriak moztzen famatu ziren eta Erromak bere laguntzaileei ematen zizkien diplomaei esker haien berria heldu zaigu. Hau ez da zinematik asmatu gertakaria. Kristo ondoren 69. urtean. Erromako Armada Holandako Asxiburgium herrian (gaur egungo Asberg) lotan den artean, batabiarrek eta germaniarrek, bi leinuak batera, inolako oztoporik gabe kampa mendura

sartu eta erromatarrek itzarri ahal garbitzen dituzten. Guarnizio osoa errendatu egin da. Hona hemen Tacitok hitzez hitz dioena: 'Supituki, guztiz bestelako norantza hartu zuen aferak. Galbak zuzentzen zituen euskal 'cohorteak' ailegaturik, borrokaren zarata zela medioz erakarrira, gibelatik eraso zieten etsaiei, eta, euskaldun gutxi egon arren, alimalezko sarrasakia egin zuten, izua etsaiaren armadan hedatuz. Batabiar gehienei zintzurra egin zieten eta germaniarren artean ez zen ezta bat ere salbatu'.

JUANTXO URDIROZ



«Augusto enperadoreak berak izan zuen luzaroan goardia pribatu bat euskaldunetz hornitua».

Euskal Armada horren arrastoa galdu egiten da. Hortik gutxira, Britannian, beste euskal armada bat daukagu 'Cohors II Vasconum equitata civium Romanorum'. Hau bigarrena baldin bazen, horrek esan nahi du bazela beste bat guttienez. Oinezkoek kanpora, baziren zaldunak ere. Eta are gehiago. 'Civium Romanorum', hots, hiritar erromatarren maila zuten. 109. urtean Mauritania Tingitanan diploma militar bat daukagu, 'Cohors II Hispanorum Vasconum-a' goraitatuz. 122. urtean, Hungriako Brigetion herrian aurkitzen dugu saritutako euskal tropa diploma militar batean. 156. urtean Volubilis eta Valentia Basanan, hau da, African, agertzen dira 'Hispanorum Vasconum civium Romanorum' izenarekin.

Honaino sari militarrik. Europa oilar burruka baten aretoa zeneko garaian, euskaldunak oso preziatuak bide ziren arma aferetarako. Augusto enperadoreak berak izan zuen luzaroan goardia pribatu bat euskaldunez hornituta. Orduko euskaldunek ezin askatuago zuten eskua zintzarriak mozteko, eta gainera fidatzeokoak ziren. Enperadore baten zat, bizkartzain onak izatea hil ala biziko agera da. Ikus bedi bestela Indira Gandhiren kasua edota Anwar Sadatena. Beraz, garbi dago hemen gudari harrobi ederra zegoela. Hau idazteko erabili dugun informazio iturria 'Los vascos en el ejercito romano' izeneko artikulua da, A. Garcia y Bellidok idatzia eta 1969. urteko urtarrillaren alean argitaratua.

Nafarroako urmael eta zingiren egoerak polemika sortu du berriro ere, hegaztiak garai honetan Europara egiten duten bidaia dela eta. Talde ekologista batzuek ehiztariei leporatzen dizkiete hegaztien arazo nagusiak, baina besteek zona heze hauen egoerari erreparatzen diote bereziki.

Atsedeenlekuak arriskuan

PATXI ULAIAR / IRUÑA

Antzarakumeak, lertxun hauskarak, lertxuntxo itzainak, zingiro-mirotzak, murgilariak, edo txilinportak; kopetazuriak edo murgilak; zozoak eta birigarroak. Ez dira ugatzak, saiak edo Pirinioetako hartza bezain ezagunak, baina garai honetan saldokari ari dira Nafarroan, zeruan eta lurrian. Kontrapasan datoz, beren ohizko bizitokitara berriro itzulian, negua Afrikan eta Mediterraneo aldean eman ondoren. Bide osoan zehar zingira eta urmaelak topatzen eta aukeratzen dituzte, bidearen nekea arintzeko tokiak, Pirinioak zeharkatu baino lehen. Gure lurraldean ezagun dira oso Pitillasko aintzira, Pulgerko, Zolinako eta Lotzako urmaelak edota Allotz eta Leurtzako urtegiak.

Aste honetan, ia urtero gertatzen den gisan, berriro sortu da eztabaida inguru hauek duten babesa eta erasoak direla eta. Batzuk artifizialak, ez dute Administrazioaren behar adinako babesa, eta horri ezkutuko ehiztarien arazoa gehitu zaio. Hain zuzen ere, horri buruzko salaketa egin berri dute talde ekologistek, hauen datuen arabera, hauetako hegaztiak inoiz baino gehiago akabatu baitira aurtun.

ANAT-LANEK, horrela, Lotza, Itza eta Zolinako urmaeletan egunotan dagoen ezkutuko ehiza salatu berri du prentsa ohar baten bidez. Ehiza gauez izaten da, hegaztiak inguru hauek atsedena hartzeko aprobetxatzen dutenean, eta inguruko herrietakoek egiten dutela dio talde ekologistak. Hori dela eta, bigilantzia handiagoa eta Gobernuak berak onartutakoa bete dadin eskatu du taldeak, Lotzako, kasu, 'eremu naturala' izendatua baitago. Halaber, Gurelur taldeak aste honetan bertan adierazitakoaren arabera, inoiz baino ehiza gehiago egin zen iaz. Talde honek egindako segimenduan hildako ehun hegazti zenbatu ziren iaz, eta duela bi urte hemeretzi baino ez ziren izan. Talde horren arabera, ezjakintasun eta arduragabekeria handia dago horren atzetik, «jendeak ohartu beharra baitauka katedral edo ondasun artistiko bat hondatzearen antzeko kalte egiten duela».

«EHIZA EZ DA LARRIENA» Ugatza taldearen arabera, baina, ehizari urmaelen egoera txarra leporatzea «bidegabea eta irreal» da. Talde honen ustetan, iaz hegazti hil gehiago zenbatu ziren «segimendu handiagoa egin zelako, eta bakarrik bi urmaelen garrantzia azpimarratzea —hiriburutik gertu



Hegazti franko pausatzen da egunotan Nafarroako zingiretan.

daudelako edo— eta bertan paratu nahi izatea bigilantzia osoa, ehiza azpimarratuz, zentzugabea da».

Javier Ardanaz talde horretako partaidearen ustetan, betiko kopurua akabatzen da, «oso zaila

baita jakitea zenbat hil diren urte batean. Egin daitekeena da jarraipen handiagoa, kopuru hori ahalik eta zehatzen jakin ahal izateko». Horregatik arazo nagusiak besteak direla dio ekologista horrek. «Kontserbazioa

beste garaietan baino hobea da, baina oraindik askoz hobeto egin beharko litzateke. Zelaiak eta larreak ia urmaeleraino heltzen dira, eta nekazariak erabiltzen dituzten pestizidak eta ongarririk uretara heltzen dira, euri-

Talde ekologistek egindako segimenduen arabera, ehun hegazti akabatu ziren iaz, eta duela bi urte 19 baino ez ziren izan.

aren bidez». Babestutako eremuak ez direla errespetatzen azpimarratu du Ardanazek. «Pitillasko zingira eremu naturala da, baina ez dago ongi babestua, baliabide nahikorik ez dagoelako. Egia da ere ehiztarien aldetik lehen baino errespetu handiagoa dagoela, baina oraindik urrun gaudela ona behar lukeen egoera batetik».

Horrekin nahikoa duenaren dako, esan behar inguruko zonetako bezalako maila dagoela Nafarroan. Ardanazek dioenez, Aragoi eta Gipuzkoan, kasu, antzeko arazoak dituzte zingira eta urmaelekin. «Aragoi askoz ere zona gehiago dituzte, eta gutxiago babestua daude, eta Gipuzkoan kontrako gertatzen da: oso gutxi dira, eta arreta handiagoa dago. Baina, oro har, hemengo arazoak dira toki orotan».

«Ehiza, gutxienezkoa»

P.U. / IRUÑA

Ugatza taldeak egindako txostenean jasotzen denez, inguru hezeek dituzten arazo nagusiak bost dira: kutsadura; ohizko ur kopuren desagertzea; begetazioaren desagertzea, suteak, zuhaitz mozketak eta nekazaritza direla eta; argindar hariak; espezie berriak, eta, «axolagabeena», ehiza.

Taldearen arabera, Zuastiko zingiran «luze gabe» buka litezke arazoak, «proiektuan dagoen golf zelaian zona heze honen kontserbazioa aurrikusten ez baldin bada». Halaber, bertan dagoen hariztiaren garrantzia azpimarratu du Ugatzak, «Iruñerriko azken baso-igel jauzkarien kokalekua». Lotzan ere antzeko arazoak ikusten ditu taldeak, «drenajeak ez baitu ur kopuru egokia lortzen uzten». Horren ondorioz, hegaztiak behar duten zona franko murrizten da. Halaber, kable elektrikoek espezie hauen hilkortasun tasaren % 50 sortzen dutela azpimarratu dute, eta inguru horretan ugariak dira

horrelakoak. Ugatzaren arabera, baina, akats larria izango litzateke bi inguru hauen egoerari garrantzia ematea eta besteak ahaztea. «Ez da asko bilatu behar zingira hauen antzeko arazoak dituzten beste zonak aurkitzeko: Itzako urmaelaren egoera antzekoa da, eta Muedako zingira ere oso utzia dago, hortik ura ateratzen duen putzua dela eta». Halaber, taldeak Irunberrin, Argetas eta Valdelafuenten hegaztien kontra izandako erasoak aipatu ditu, eta baita espezie osoak kaltetzen dituzten zenbait ekintza ere. Horrela, Pulgerren izan diren espezie murgilari askoren —kopetazuri, txilinporta, murgil— populazioak jaitsiera garantzitsu eta nabaria izan du, isurkin industrialak direla bide, eta izokin familiako espezie ugalketa artifizialak bertako anfibioendako —uhaude piriniarra, baso-igel jauzkari edo apo ezproidun— kaltegarriak izan dira. Hori guztia dela eta, «hitz-jario errazak baztertu eta elkarrekin lan egiteko deia» egin die dagokien guztiei.



Ekologistek zona heze hauen egoera larria salatu dute.

«Gaixoa da protagonista nagusia»

JUAN KRUIZ LAKASTA / IRUNEA

EGUNKARIA.— Nafarroako Gizakia Helburuk hiru urte bete ditu.

IÑAKI ALBERDI.— Bai, eta poz handia sentitzen dut, hiru datutan oinarrituriko poza, hain zuzen ere. Batetik, hiru urtetan gure egitarau terapeutikoak behar duen egitura guztia erai ki dugu, eta egitaraua bera martxan jarri dugu. Bestetik, gure lanaren fruituak dagoeneko hor daude, 37 lagunek egitaraua amaitu dute, eta beste askok egitaraua burutu gabe droga utzi dute. Azkenik, arazoari ematen ari garen erantzuna ona da; horren lekuko da eta egunero guregana hurbiltzen den jendea.

EGUNKARIA.— Nola ailegatu zen Gizakia Helburu Nafarroara?

ALBERDI.— Ez genekien jendearengan sortzen ari ginen itxaropenei erantzun egokia ematen asmatuko ote genuen. Liluragarria zen zer-nolako kemen eta indarrez lan egin zuten garai hartan egoitzan zeudenek eta euren senitartekoek. Beti mezu bera ematen zuten: «Egitaraua aurrera aterako dugu, eta oso ongi gainera».

EGUNKARIA.— Badakigu nola ailegatu zen Gizakia Helburu Nafarroara, Nola ailegatu zen nafar bat Gizakia Helburura?

ALBERDI.— Garrantzitsuenafar horrek drogaren mundutik ateratzeko gogoia edukitzea da. Berak borondate hori erakusten duenean, hurrengo 24 orduetan lehen elkarrizketa izaten dugu berarekin. Elkarrizketa horretan gaixoa epe motzean bete ditzakeen xedeak finkatzen ditugu, hurrengo 24 orduetan egin ditzakeenak. Ezin baitzikiozu urrutiko jomugak proposatu. Hori da gure egitarauaren abiapuntua. Gero familia eta gizartearen inplikazioa bilatzen dugu. Lehenik eta behin, familia terapeuta laguntzailea izatea bilatzen dugu. Horren ostean, bergizarteratzeari garrantzi handia ematen diogu, hori baita, gure aburuz, egitarauaren etaparik latzena. Beti ere arazoa duen pertsona da

egitarauaren protagonista nagusia.

EGUNKARIA.— Gero eta jende gutxiago hurbiltzen da zuengana. Zer dela eta?

ALBERDI.— Besteak beste, bi arrazoi direla medio. Batetik, produktu berri bat kalera ateratzen denean jende guztiak probatu egin nahi du, eta gu jadanik ez gara produktu berria. Jendeak dagoeneko aski ongi daki gurea egitarau gogorra dela, eta gaixoa ezezik, beste askok ere lan egin behar dutela, gehienbat senitartekoek.


Bestetik, gero eta heroinomano gutxiago dago. Drogazale bakarra heroinomanoa dela onarturik dago gizartearen. Kokaina eta bestelako produktuak hartzen dituztenek arazoa badutela baina

bestelakoa dela uste dute, txikiagoa, eta hori gezurra da.

EGUNKARIA.— Aurki arazo hori areagotu egingen da, metadona erabiltzen duten egitarau terapeutikoak martxan jarriko baitira Nafarroan. Zer deritzezu egitarau horiei?

ALBERDI.— Droga jakin bat ematen dute —metadona hain zuzen— drogamenpekotasuna gaintu ahal izateko. Nire irudikoz hori ez da irtenbide egokia; izan ere, epe luzera begira arazoa ez baita desagertzen. Ez

dira terapeutikoak drogazalea menpekotasunetik aldentzen dutelako, baizik eta drogamenpekotasunak eragin ditzakeen zenbait gaixotasun, HIESa esaterako, saihesten laguntzen dutelako. Mantentimendu egitarauaz hitz egin behar



JOXE LACALLE

Iñaki
Alberdi
/
GIZAKIA HELBURUKO
ZUZENDARIA



/
SOSLAIA
Hiru urtez gizakia
helburu

Nafarroako Gizakia Helburu egitarau terapeutikoak hiru urte bete ditu. 1991ko otsailaren 11n jarri zen abian, eta geroztik 434 heroinomano bilatu dute Iñaki Alberdik zuzentzen duen egitarauaren laguntza. Horietatik 37k besterik ez dituzte amaitu programaren etapa guztiak: Harrera, Elkarbizitza eta Bergizarteratzea. Egitaraua gogorra da, gaixoa bere familia-rena ere eskatzen du, eta finean, gizartearena oro har. Gizakia helburutzat edukitzeak nekeza dirudi oso. Iñaki Alberdik dioenez, baina, merezi du, aldi berean zinez aberasgarria baita.

harko litzateke, eta ez egitarau terapeutikoaz. Nik metadona soil-soilik behin-behineko kasu larrietan eta kontrol estu baten pean erabiliko nuke, ez baitauka zentzurik mantentimendu egitaraua lutzateak.

EGUNKARIA.— 1992. urtean Gizakia Helburu egitarauaren zeudenetako % 50ek tratamendua bertan behera utzi zuten, eta 1993. urtean % 42k. Noiz eta nola gertatzen dira amore emate horiek?

ALBERDI.— Lehen fasea da gogorra, harrera izenekoa. Lehen egunak dira gogorrenak. Harrera fase horretan amore ematen dutenen % 46k lehen 30 egunetan etsitzen dute. Kaletik atera eta horrelako egitaraua hastea aldaketa gogorra da, eta askok ezin dute jasan. Elkarbizitza etapa ez da horren latza. Bergizarteratze prozesua berriro ere une erabakigarria da. Hor ere askok uzten dute, % 11k edo. Hauetako asko, dena dela, ez dira drogara itzultzen.

EGUNKARIA.— Gizakia Helburu kartzela zigorra betetzen ari diren presoek ere parte hartzen dute. Nola gertatzen da partehartzea?

ALBERDI.— Lehenik eta behin, kartzelan dauden drogazaleekin elkarrizketak izaten ditugu, gure egitaraua droga uzteko edota kartzela uzteko segitu nahi duten jakin ahal izateko. Horren ostean, epailek baimena ematen duenean presoak gure harrera zentrori etortzen da. Gurekin ematen duen denborak kartzelan ematen den denborak adina balio du. Presoak egitaraua amaitu eta kartzelara bueltatu behar duenean sortzen da arazoa. Ez da bidezkoa drogamenpekotasunaren ondorioz legea hautsi duen norbaitek gurea bezalako egitarau gogor eta luzea bete eta gero kartzelara itzuli behar izatea. Helburua gaixoa bergizarteratzea da, eta kartzelan ez da inor bergizarteratzen. Dena dela, eskertzekoa da epailek hemen eskaini diguten laguntza. Oztoporik handiena lege araudia da. Hori aldatu behar-ko litzateke.

NOISKIJATOR

© Zaldi Eroak

